

## **Mimoa eta ipuin kontaketa uztartuko dituzte asteazkenean Zarauzko Sanz Enean**

Asteazkenean ipuin kontaketa berezia izango da Sanz Enea liburutegian: Desioen izarra, Bikelmiren eskutik. Bi zarauztarrek eskainiko dute: Mikel Aiertzak ipuinak kontatuko ditu eta Mikel Erguinek mimo lanak egin. Txotxongiloak ere izango dira. Desioen fantasiako munduan sartuko dira umeak, eurek asmatutako neska bati esker, eta elkartasuna eta bakea bezalako baloreak landuko dituzte. Bukaeran hurrek ere ipuinak kontatzeko aukera izango dute, eurak protagonista aktibo izan daitezen.

3-10 urte bitarteko haur eta gatetxoei dago zuzendua, eta 50 ba minutu iraungo ditu saioak. Informazio gehiagorako, Bikelmiren webgunea bisita daiteke.